



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

2021eko URRIAREN 5eko BILKURA ARRUNTA **LEHEN DEIALDIA**

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeitabateko urriaren bosteko hamabietan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Garoa Gartziandia Agirrezabala
Francisco Javier Erro Remirez
Carlos Iriarte Iraceburu
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Idazkaria: Mainer Muguiro Perez

Alkate udalburuak gai zerrenden gaiei ekin die. Hona hemen:

1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.

2021eko uztailaren 27an egindako osoko bilkura arruntaren akta ez da irakurri zinegotziek aldeztu aurretik haren fotokopia jaso dutelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktari oharpenik egin nahi dion. Inork ez du ezer esan eta bozketa egin ondoren akta aho batez onetsi da eta bertan izan ziren guztiek sinatu dute.

2.- Jakinarazpen ofizialak Osoko Bilkuraren ezagumendurako

- Jakinarazi da Nafarroako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatu dela Nagoreko edateko uren araztegi obrak finantzatzeko
- Jakinarazten da indarrean sartu dela 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, ingurumen-eragineko jarduerak arautzen dituenak
- Ebazpena, 6.082,65 euroko dirulaguntza eman duena udal plan estrategikoa

garatzeko.

-Nafarroako Gobernuak egin duen transferentzia arruntari buruzko informazioa eman da.

- Jakinarazten da Nafarroako Gobernuak baimena eman diola Dianova España Elkarteari Zanduetako instalazioetan Urrobi ibaiko ur-hartune bat legeztatzeko eta kontsumorako hornidura-ur gisa erabiltzeko.

3.- Alkatearen ebazpenak Osoko Bilkuraren ezagumendurako

Alkateak honako ebazpenen inguruko informazioa eman du, osoko bilkurak jakin dezan:

- 14/2021 Ebazpena, 2021eko abuztuaren 3koa, San Andres kalean bi landa-apartamentu turistiko sortzeko obra-lizentziaren aldeko txostena ematen duena (34 pol. 33 lurzatia) Artzibarko Hiriberrin.
- 15/2021 Ebazpena, 2021eko abuztuaren 20koa, San Martin kaleko etxebizitza batean teilatua aldatzeko obra-lizentziaren aldeko txostena ematen duena (27 pol. 23 lurzatia) Espotzen.
- 16/2021 Ebazpena, 2021eko abuztuaren 20koa, San Lorentzo kalean instalazio fotovoltaikoa jartzeko obra-lizentziaren aurkako txostena ematen duena (31 pol. 27lurzatia) Arrietan.
- 17/2021 Ebazpena, 2021eko abuztuaren 27koa, Triatlon Antsoain Klubak 2021eko irailaren 4an antolatutako triatloia egiteko baimena ematen duena.

4.- Clara Ruiz de Gauna Borregueroren kargu uzta, Artzibarko Udalaren zinegotzi gisa

Haurdunaldiaren eta ondorengo jaiotzaren ondorioz, Clara Ruiz de Gauna Borreguerok Artzibarko Udalaren zinegotzi kargua uzteko eskatu zuen. Clara Ruiz de Gauna Borreguero zinegotzia Artzibar Herri Taldearen kide da.

Kontuan hartuta Hauteskunde Orokorren Erregimena arautzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan ezarritakoa.

Aho batez erabaki da:

LEHENENGO.- Clara Ruiz de Gauna Borreguero andreak udal honetako zinegotzi kargua utzi duela jakitea.



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

BIGARREN.- Javier Diez Huguet Artzibar Herri Taldea Hautagaitzako hautagaia dela adieraztea, aurreko Udal Hauteskundeetan zerrendetako lehen ordezkio postua bete baitzuen. Udalbatza honen iritziz, hari dagokio Udaleko zinegotziaren lanpostu hutsa betetzea.

HIRUGARREN.- Erabaki hau Hauteskunde Batzorde Zentralari helaraztea, dagozkion izapideak egin ondoren, Artzibar Herri Taldea hautagaitzaren izenean Javier Diez Huguet jaunaren aldeko kredentziala egin dezan, Artzibarko (Nafarroa) Udaleko zinegotzia den aldetik.

5.- Artziko indusketa arkeologikoan informazio-panela jartzea onartzea, hala badagokio

Ikusirik Artziko indusketa arkeologikoan ez dagoela informazioa ematen duen panelik.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Artziko indusketa arkeologikoan panel informagarria jartzea onartzea.

6.- Abeltzaintza azpiegituren diru-laguntza eskatzea, hala badagokio.

Ikusirik ibarreko abeltzaintza azpiegiturak hobetzeko diru-laguntza azaroaren 30a arte eska daitekeela.

Ikusirik Eurovelo 3 proiektua, Erromesen Ibilbidea (Trondheim-Santiago de Compostela) izenekoa, eta ibilbide horren zati bat Artzibar zeharkatuko duela.

Kontuan hartuta Kanadako hesiak jarri behar direla ganadua eta animaliak ibilbidera sar ez daitezen, horrek dakarren arriskuarekin.

Ikusirik ibarreko hainbat mendi-tokitan ura jartzea beharrezkoa dela.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Abeltzaintza azpiegituretarako diru-laguntza eskatzea 6 kanadako hesi jartzeko eta mendiko hainbat tokitan dauden askak hobetzeko.

7.- Genero indarkeriaren diru-laguntza, dagokion erabakia hartzea.

Ikusirik 2021ean zehar, Artzibarko Udalak Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren bidez jasotzen duen diru-laguntza, genero-indarkeriaren aurkako protokolo bat idazteko erabili dela, Izaga gizarte-zerbitzuen mankomunitatearekin batera.

Ikusirik Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen asmoa protokoloari jarraipena ematea eta martxan jartzea dela.

Ikusirik 2022. urterako udalak 1.047,16 euroko dirulaguntza jasoko duela genero-indarkeriaren aurkako estatu-itunetik.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

LEHENIK: Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari 1.047,16 euro esleitzea, 2022an genero-indarkeriaren aurkako protokoloa abian jartzeko.

BIGARREN: Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari erabaki honen berri ematea.

8.- Mainer Muguiro Perez Artzibarko Bake Epaitegiko idazkari gisa onartzea, hala badagokio.

Ikusirik 2021eko ekainaren 4an Artzibar, Orotz-Betelu eta Longidako udalen batasuneko presidentearen alkatetza-ebazpena eman zela, zeinaren bidez Joana Estanga Urrozi borondatezko eszedentzia ematen baitzaio 2021eko ekainaren 14tik aurrerako ondorioekin, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 26.1.c) artikulua araber (251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duena), eta lanpostua gordetzeko eskubidea ematen baitzaio lehenengo hemezortzi hilabeteetan, 2022ko abenduaren 13ra arte.

Ikusirik 2021eko ekainaren 4an at, Orotz-Betelu eta Longidako udalen batasuneko presidentearen alkatetza-ebazpena eman zela. Ebazpen horren bidez, Mainer Muguiro Perez izendatu zen Artzibar, Orotz-Betelu eta Longidako udalen batasuneko aldi baterako idazkari, administrazio-araubidean, idazkari bakar bat izateko.



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

Ikusirik Artzibar, Orotz-Betelu eta Longidako udalen batasuneko idazkaria Artzibar, Orotz-Betelu eta Longidako bake epaitegietako idazkaria ere badela.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

LEHENIK: Mainer Muguiro Perez Artzibarko bake epaitegiko idazkari izendatzea onartzea.

BIGARREN: Justizia Zuzendaritza Nagusiari erabaki honen berri ematea.

9.- Alkatetzaren txostenak

Alkateak honako informazioa eman du:

- Bilera proiektu estrategikoetako Departamentuarekin: finantzazioa, Hiriberriko biltegi eta kontzejuko etxeko proiektua, kanalaren katastroa, Nagoreko lurzatiaren erabileraren aldaketa eta hainbat gai.
- Amma Ibañetako Batzarra zahar etxeko kudeaketarekin zerikusia duten gaiez hitz egiteko.
- Itoizko Mahaia, besteak beste katastroaz eta Itoizko ordainaz hitz egiten zen.
- Nagoreko bainu eremuaren gaineko bilera. Artziko jauregiaren birgaitzeari buruz hitz egin zen, bainu eremuak edateko urez eta elektrizitatez hornitzeko moduz, kontratatutako langileez eta 2022an eremu horietara sartzeagatik kobratuko ote zen.
- Aterpea egin edo ermitauaren etxea zaharberritzeko aukera. Udalaren osoko bilkura orain aterpea egitearekin ados dago eta, aurrerago, ermitauaren etxea zaharberritzea eskatzea.

10.- Kide anitzeko organoetako eta bestelako ordezkarien informazioa

Clara Ruiz de Gauna Borreguero:

- Generoaren indarkeriaren aurkako protokoloa sinatu da. Prentsaurreko bat egingo da, eta, bertan, inplikaturako udalek eta hainbat kolektibok parte hartuko dute, hala nola gizarte-zerbitzuek, foruzainek, etab.

Maria Isabel Cañada Zorrilla

- Reunión red explora, se informa que se ha realizado una web y se está diseñando un reglamento interno y una hoja de ruta.
- Pirinioko Mahaia: Hainbat gai jorratu dira, hala nola finantzazioa, zura landu ahal izateko prozesu integral bat egiteko aukera, hainbat enpresa eta toki-administrazioaren eta energia-komunitateen inplikazioarekin, etab.

11.- Eskaerak eta galderak.

- Maria Isabel Cañada Zorrilla zinegotziak galdetu du zertan den udal plana eta erantzun zaio Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatu behar dela abian jartzeko.
- Maria Isabel Cañada Zorrilla zinegotziak galdetu du Ibarreko kontzejuetan baso produktuen barrutia egin daitekeen eta erantzun da gaia aztertzen ari direla.

Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez onetsitako urgentzia aitortu ondoren, honako gaiak sartu dira:

Ibarreko Eguna ospatzeko karpak eta mahaiak erostea:

Ikusirik Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren 2021eko apirilaren 26ko 15E/2021 Ebazpenaren bidez, Pirinioetako lurralde-eremuan inskribatutako toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdia onartu zela, Lurralde Garapen Iraunkorreko proiektuetan inbertitzeko 2021., 2022. eta 2023. urteetan.

Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren uztailaren 16ko 28E/2021 Ebazpenaren bidez, 32.302,10 euroko laguntza eman zitzaion Artzibarko Udalari.

Ikusirik 2021erako 14.605,79 euro eman dituztela eta ibarreko egunerako eta bestelako jaietarako karpa eta mahaiak erosteko erabiliko dela.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

LEHENIK: 8 x 15 metroko bi isurialdeko karpa bat erostea Stands Navarrari adjudikatzea, IFZ B31717895 eta helbidea Orkoiengo Cruz Blanca Industrialdean, B karrika, 19 zkia. (Nafarroa) duena, 17.000,50 eurotan.

Adjudikazio honetarako sistema faktura bidezkoa da, Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. Artikuluaren arabera.



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

BIGARREN: Polietilenoazko hamazazpi mahai tolesgarri erostea Comercial Itolegiri esleitzea, IFZ B31508013 eta helbidea Aurizberriko Done Jakue auzoa, 10, (Nafarroa) duena, 1.223,30 eurotan.

Adjudikazio honetarako sistema faktura bidezkoa da, Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. Artikuluaren arabera.

HIRUGARREN: Ikusirik inbertsioa egitea beharrezkoa dela, honako aurrekontu aldaketa egitea erabaki da:

Aurrekontuaren aldaketak.

4/2021 Txostena. Kreditu bereziak:

KAPITULUA		KREDITUA
3380 609001	Ibarreko Egunerako altzariak erosteko inbertsioa.	18.223,80
FINANTZIAZIO ITURRIAK		
6	Pirinioko Planaren diru-laguntza inbertsioetarako	14.605,79
8	G.S.-ko Diruzaintzako soberakina	3.618,01

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: 2021eko Aurrekontu Orokor Bakarraren aldaketa txostena hasiera batean onartzea.

BIGARREN: Osoko Bilkurak hasiera batean onetsi dituen aurrekontuaren aldaketak Idazkaritzan egonen dira ikusgai, iragarkia Iragarki Oholean argitaratu eta hamabost lan eguneko epean, herritar edo interesatuek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten.

HIRUGARREN: Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontuaren aldaketa behin betiko onetsizat emango da.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamalauak eta berrogeita bostean, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.